



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2017ko maiatzaren 26an, 18:30ak direnean, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO 2 BILKUREN AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. OBRAK EGIEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

M.E.A.k idazkia aurkeztu zuen 1 poligonoko 119 partzelan (lurzoru urbanizaezina) oilaskoak gizentzeko hegazti ustiatagia handitzeko obrak bukatzeko epea luzatzeko eskatuz. 2010eko ekainaren 8ko alkatearen Ebazpenean eman zitzaion lizentzia eta obrak bukatzeko epea luzatuz joan da. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak bukatzeko epea luzatzea beste urte baterako, lizentziaren baldintzak mantenduz eta, obraren iraupena asko luzatzen ari direla kontuan izanda, berri hauek jarritz:

- Aurrekontua eguneratu.
- Betekizun teknikoak aldatu badira, egun indarrean daudenak bete.

Bestalde, baldintza hauek ere bete behar ditu:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Obrak egiterakoan, Udal araudiak jartzen duena bete, hirugarrengoen eskubideak errespetatu eta eskatu den obra baino gehiago ez egin. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA. ITURENGO 2 POLIGONOKO 920 ETA 537 LURSAILAK.

2017ko urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran eman zitzaion hasierako onespina U.B.E.k aurkeztutako hiri-jarduketarako plan bereziari, Iturengo 2 poligonoko 920 eta 537 lurzatien dagokiona, 920 partzelako etxebizitza handitu ahal izateko. Espedientea jendaurrean egon zen (2017/03/28ko NAO) eta ez zuen inork erreklamaziorik aurkeztu.

Jarraian, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearekin bat etorritz (7, 61, 92.5, 98.2, eta 74. artikulua), aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onestea hiri-jarduketarako plan berezia, Iturengo 2 poligonoko 920 eta 537 lurzatien eremuari dagokiona.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.
3. Nafarroako Gobernuari bidaltzea onetsi den agiriaren kopia bat.
4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

Javier Bereauk ez du erabaki honetan parte hartu.

4. 2016KO KONTUAK.

Udalak aldeko txostena eman zuela eta espedientea jendaurrean egon den epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu kontuan izanda, 2/1995 Foru Legearen 242. artikularekin bat etorriz, aho batez onesten dira 2016ko kontuak.

5. AURREKONTU ALDAKETA.

2017ko aurrekontu orokorrean kreditu bereziak sartzeko 1 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespena ematea kreditu bereziak sartzeko espedienteari.
2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da aldaketaren laburpena:

Gastuetako alta:

Kontusaila: 1-1611-62200. Iturengo biltegiko obra. Zenbatekoa: 223.112,13 euro.

Kreditu aldaketa honela finantzatuko da:

17508001 kontusaila. Diru-laguntza Iturengo biltegiko obrarako. Zenbatekoa: 132.503,10 euro.

187010 kontusaila. Finantzabide lotetsia duten gastuetarako diruzaintzako gerakina. Zenbatekoa: 51.701,37 euro.

18700002 kontusaila. Diruzaintzako gerakina, baliabide lotetsiak izateagatik. Zenbatekoa: 38.907,66 euro.

6. ZENBAIT ESKAERA.

1. J.M.A.V.k baimena eskatu zuen *Legargorri* parajeen erori diren 3 arbol aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabakitzen da A. jaunari saltzea arbolak 24 eurotan.

Alzuri jauna abstenitu egin da.

2. D.P.A.k baimena eskatu zuen *Mirukabi* parajeen erori den haritza aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabakitzen da P. jaunari saltzea arbola 6 eurotan.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3. Idazkariak irakurri du Doneztebeko Udalak bidalitako idatzia 0-3 bitarteko zikloaren finantzaketari buruz. Gonbidapen hau luzatzen dio Udalari: Askin Haur Eskolako zerbitzua erabili nahi duten herriko familiei hileko 100 euroko laguntza ematea. Eztabaidatu da eta Udalbatzari gomendagarria iruditzen zaio gaia aztertzea Malerrekako Mankomunitatearen baitan.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/23 zenbakia, 2017ko apirilaren 12koa, zeinean erabaki baitzen J.M.M.ri baimena ematea kanpaldia egiteko *Mendaurko* embaltsean.
- 2017/24 zenbakia, 2017ko maiatzaren 16koa, zeinean erabaki baitzen A.E.i errekeritzea bertan behera uztea *Gorostibiaenean* egiten ari zen obrak.
- 2017/14 zenbakia, 2017ko maiatzaren 24koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.A.I.ri zenbait obra egiteko Isasi-Enea etxean.
- 2017/15 zenbakia, 2017ko maiatzaren 24koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea I.A.ri *Haltzadi* etxeko fatxadak, leihoak eta pertsianak pintatzeko.
- 2017/16 zenbakia, 2017ko maiatzaren 24koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea R.S.i obra txikiak egiteko *Eguzkialdea* lehenengoan.
- 2017/17 zenbakia, 2017ko maiatzaren 24koa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.A.ri *Mutigako* bordako fatxadak pintatzeko (3 poligonoko 418 lursaila).
- 2017/18 zenbakia, 2017ko maiatzaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea F.J.A.ri *Joanea* etxeko atea 75 zentimetro zabaltzeko eta ate automatikoa jartzeko.
- 2017/19 zenbakia, 2017ko maiatzaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea B.U.i 15 metro karratuko pistzina desmuntagarria jartzeko *Barbenea* etxeko baratzen, lursaila zelaitu ondoren.
- 2017/20 zenbakia, 2017ko maiatzaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen lizentzia ematea J.A.i bidea irekitzeko 2 poligonoko 335 partzelan.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu egin da.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Lindutx Baztan SLk jarri zuen 33/2016 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa haren ondare-erantzukizun erreklamazioa ez onartzearen aurka. 2017ko apirilaren 3an eman zen 91/17 epaia zeinean errekurtsoa ukatu baitzen. Epaia dagoeneko irmoa dela azaldu du idazkariak. Jakinaren gainean geratzen da Udalbatza.

2. Ondoren, beste agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.M.E. eta J.J.C.rena—; Nafarroako Gobernuak eman duen baso aprobetxamenduko baimena —B.U.i—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —C.S.S.en alta eta J.J.C., M.F.M. eta J.A.A.ren bajak—; Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari orokorraren 132/2017 Ebazpena, mendiko lanak egiteko diru-laguntza ukatu zuena; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 20:45 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.